

Kant, Kierkegaard y poetas que no son citados pero entre los que destaca Francisco de Quevedo. Abunda el verso libre, aunque no faltan sonetos y hasta estrofas que remontan a la lírica popular más antigua como el villancico. Está escrito con un lenguaje nítido, rico y transparente, creador de una poesía honda, tan rica de pensamientos como de sentimientos.

*Ante un riesgo real, o resultante
de un no sé qué convulso y agitado,
mi corazón palpita acelerado,
preso de una zozobra trepidante.*

*Cada vez es más aguda y lacerante
mi alteración, me siento arrebatado
del sólito vivir acompasado,
fruncido el ceño, lúgubre el semblante.*

*El alma, ante la vista pavorosa
del miedo Polifemo, se guarece,
-Ulises en su gruta-, temblorosa,*

*y allí, espantada y sola, permanece;
mas, al fin tras la noche, un alba rosa
asoma por oriente y... amanece.*

(“El color del miedo”, Ventanas a la tarde)

235



Suarez, Castillo

(Altsasu, 1976)

Lehenago hasi nintzen poesia irakurtzen idazten baino. Udak amonaren etxeko patioan pasatzen nituen, eta han hasi nintzen Mondadorik plazaratu zituen poesia liburu merkeak irakurtzen. Hasiera batean esaldiak kopiatzen nituen eta, ondotik, nire gisara moldatzen. Horrela sortu ziren nire lehen poemak, hogeit bat urterekin.

Iruñeko Udaleko egile berrien lehiaketa bi aldiz irabazi nuen, eta Arabako aldundiko Ernestina de Champourcín beste bi aldiz. Horren ondorioz etorri ziren liburu “kormertzialak” noizbait poesia komertziala izan bada. Lehendabizikoa Susa argitaletxearekin argitaratu nuen, baina berehala ohartu nintzen hura ez zela nire bidea, eta gainerakoak Elkar argitaletxearekin atera nituen, horietako, bat, gainera, Jaka bekari esker.

Zorte handikoa naiz kritika onbera izan delako nirekin eta argitaratzeko arazorik ez dudalako izan –euskarar poetarik emankorrenetariko bat naiz—, baina nago kanona ezartzen dutenen gustukoa ez naizela. Askok ez dute ulertzen Elkar hautatu izana ez baita erreferentziazko argitaletxe bat poesiari dagokionez, baina damurik ez dut horregatik, esker ona baizik.

Nire azken argitalpena gauza berezia izan da: album ilustratu bat Maite Muterriaren irudiekin, Peru Abarka sariari esker argitaratua. Perla bat, zorixarrez, haurren liburuarekin batera jartzen dutena salgai irudiduna delako.

Poesia irakurle amorratua naiz, eta, poetaren bat aukeratu beharko banu, euskaldunen artean Amaia Lasa aukeratuko nuke zalantzarik gabe. Nolanahi ere, berriki aurkitu dudana poeta bat izan da. Idazten hasi nintzenean Elena Medelek *Mi primer bikini* argitaratu zen. Liburu hura iraultzailean izan zen niretako eta orduko irakurzale askorendako. Harrezkero Medel jarraitzen dut idazle gisa eta horretaz gain, edo, horren gainetik, editore lanetan. Maite ditut La bella Varsovia argitaletxean Medelek plazaratzen dituen liburuak. Horietako poema batzuk euskarara ekarri ditut *Iparaldeko neska* nire blogera. Izan ere, azkenaldian horretara emana nago: testuak eta irudiak hautatu eta Interneten jartzeari. Hori eta haurrendako liburuak idazteari.

Zabaldia dagoen iritziaren kontra, niretako poesia ez da terapia egiteko bide bat, ezta norberari buruz idazteko generoa ere. Medelek behin esan zuen poemak idaztea ispiluzko soineko bat janzte bezalakoa dela, zuri begira daudenak ikusteko aukera ematen dizuna, eta zeure buruaren irudi distorsionatua ematen duena. Ez zait modu hoberik bururatzen nire poetikaz idazteko. Nire iritziz, poesian adierazpena gailentzen zaio adieraziari, eta ez du zertan nitasunetik abiatutako genero bat izan. Horregatik erabaki dut ez izatea ni behatua, behatzailea baizik, eta prosa poetikoan idaztea nire poemak.

Helduendako poema-liburuak

- *Amodio galduak* (1999, Iruñeko Udala)
- *Bitaminak* (2000, Iruñeko Udala)
- *Iragarki merkeak* (2000, Arabako Foru Aldundia)
- *Mugarri estaliak* (2000, Susa)
- *Madarikazioa* (2003, Arabako Foru Aldundia)

- *Spam poemak* (2004, Elkar)
- *Bala hutsak* (2006, Elkar)
- *Souvenir* (2008, Elkar)
- *Urtebetetze festa* (2012, Elkar)
- *Zerua berun* (Ibaizabal, 2014)

Ni ez naiz
negar egiten duten horietakoa.
Badakidalako
indiferentziaz bakarrik
lor nezakeela bere arreta.
Badakidalako
ni bezalakoa dela:
behin zerbait lortutakoan
arbuia egingo duela;
soilik ezinezkoa dena
nahi duela,
hain zuzen,
ezinezkoa delako.
Horregatik egiten dut negar,
nahiz eta ez naizen
negar egiten duten horietakoa.
(Mugarri estaliak, Zarautz, Susa, 2000).

237



Suárez Tirapegui, Pilar

(Pamplona, 1965)

Pilar Suárez Tirapegui. Escritora pamplonesa. Estudié Grado Superior de Educación Infantil, ejerciendo dicha profesión a lo largo de diez años. Soy autora de poemas y relatos cortos. *Historias desde el corazón* es el primer libro que publico.